

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Punto de Vistak espazio bat eskainiko du sormen artistiko kolektiborako, laborategien programaren bitartez

Gaur irekiko da epea profesionalak eta kazetariak beren akreditazioak eskatzeko

Osteguna, 2018.eko urtarrilak 11

Punto de Vista - Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdiaren XII. edizioa 2018ko martxoaren 5etik 10era bitartean egingo da, eta programazio-lerro berria abian jarriko du; hain zuzen ere, prestakuntza eta sormena lantzeko hainbat laborategi garatuko dira, eta abangoardiako zinemarekin loturiko hainbat ildo landuko dira



"The Sound We See" proiektuaren irudiak.

Lehen laborategi honetan, The Sound We See proiektua garatuko da, sormen filmiko kolaboratiboko mugimendu orokorra, hasiera batean Los Angeles hirian garatua, eta, ondoren, hiri hauetara eramana Hiriko Sinfonia proiektuak sortzeko: Holanda, Vietnam, India, Kanada, Ingalaterra, Alemania, Japonia, Suedia, Mexiko, Bulgaria eta Letonia. Datorren martxoan, Punto de Vistara iritsiko da, laborategiko parte-hartzaileek hiriko Sinfonia egin dezaten elkarrekin, Iruña super 8mm-tan filmatua. Proiektua Uharteko Arte Zentroarekin eta Iruñeko Udaleko Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirol Departamentuarekin elkarlanean burutuko da.

Los Angelesko Echo Park Film Center-en arduradunek, Lisa Marr-ek eta Paolo Davanzok, esperientzia filmiko kolektiboa gidatuko dute, eta emaitza zuzeneko musikarekin estreinatuko da martxoaren 10ean jaialdia ixteraoan

Laborategi honetan parte hartzen dutenek 24 minutuko artisau-pelikula egingo dute, eta eguneko ordu bakoitza proiektioan minutu batekoa izango da. Super 8 kamerak eta sistema ekologiko bidezko errebelatzea erabiliko dituzte. Lan-saioak bi asteburu hauetan egingo dira: otsailaren 23tik 25era eta martxoaren 2tik 4ra, 10:00etatik 19:00etara bitartean.

Parte hartzeko kuota 15 eurokoa da, eta izena emateko [inprimakia online](#) bete behar da. Izena emateko epea irekita egongo da urtarrilaren 11tik otsailaren 14ra.

Akreditazioak eskatzeko epea ireki da

Gaur ireki da Punto de Vista 2018rako akreditazioak eskatzeko epea. Akreditatu nahi duten profesionalak eta kazetariak [jaialdiaren web orrialdearen](#) bitartez egin dezakete. Akreditazioak eskatzeko epea irekita egongo da datorren otsailaren 23ra bitarte.

Akreditazio profesionala zinemaren eta ikus-entzunezko sormenaren esparruko profesionalentzat erreserbatuta dago modu eksklusiboan (ekoizpen-etxeak eta banaketa-etxeak, errealizadoreak eta programatzaileak) nahiz hirugarren zikloko ikasleentzat, ikus-entzunezko ikasketa espezifikokoak egiten ari direnentzat. Izena emateko kuota 20 €-koa da. Ordainketa jaialdiaren web gunearen bitartez egin daiteke otsailaren 25era bitarte; behin egun hori igarota, 25 € ordaindu beharko dira esku-dirutan, jaialdiaren egoitzan, martxoaren 7tik aurrera, akreditatuen stand-an.

Prentsako akreditazioa, berriz, doakoa da, eta komunikabideko ordezkariarentzat erreserbatuta dago modu eksklusiboan (prentsa idatzia, prentsa elektronikoa, prentsa-, telebista- eta irrati-agentziak). Akreditazioak Atal Ofizialeko goizeko proiektioetara, prentsaurrekoetara eta aurkezpenetara joateko lehentasuna ematen du. Akreditazioa dutenek beste ziklo batzuetako proiektioetara joan ahal izango dute, aretoaren edukieraren arabera.

Animazioko film laburrak Iruñeko Planetarioan haurrentzat eta gazteentzat

Punto de Vistak edizio honetan espazio berri bat eskainiko du haurrentzat eta gazteentzat erakustaldia egiteko eta horiek trebatzeko. Animazioko zinema-programazioa emango da Iruñeko Planetarioan, eta zientziarekin eta kanpoko espazioarekin zerikusia duten pelikulak programatuko dira.

Gainera, Nafarroako Kutxaren lankidetzarekin, genero-ikuspegia duen zinema aztertzekeo tailer ezberdinak eskainiko dizkie Bartzelonako Drac Magic taldeak Iruñeko ikastetxe ezberdinei

Programa berria zuzendaritza artistiko berriak jaialdiaren edukiak berritzeko hartutako erabakiaren barnean kokatzen da; horrela, Dokbizia bezalako atal berriak egongo dira, hots, erreala denaren inguruan lan egiten duten artisten eta hizkuntzen arteko gurutzatzea eragin nahi duen topaketa.

Zazpi T'erdi, Lacasinegra eta Dostopos, X Films Proiektuaren zortzigarren edizioan gonbidatutako taldeak

Lehen aldiz, Punto de Vistak taldeak deitu ditu banako zinemagileen ordezkariak, jaialdiak berak ekoiztutako dokumentala filmatzeko. Zazpi T'erdi, Lacasinegra eta Dostopos talde zinematografikoak gonbidatu dira X Films Proiektuaren zortzigarren edizioan lehiatzeko. Hiru taldeek Espainian ez fikziozko zinemaren arloan garatzen ari den zinema ordezkarien eta apurtzaileen onena ordezkatzeko dute, eta hautatuak izan dira haien obra ezagutzera emateko eta oinarri geografiko gisa Nafarroa izanik filmatutako entsegu-proiektua aurkezteko jaialdian zehar.

Halaber, 2017an hautatutako proiektuaren, "La cosa vuestra", munduko premiere hartuko du jaialdiak. Lan horretan, María Cañas zinemagileak Sanferminen alderik ezkutukoenerako eta surrealistenerako bidaia proposatzen du, jai horiek hartzen ari diren bidearen inguruko hausnarketa egitearekin batera.

Boluntarioen eta epaimahai gaztearen kanpaina

Otsailaren 12ra arte irekita jarraitzen dute XII. ediziorako boluntarioak eta epaimahai gazterako kideak eskuratzeko bi kanpainak. Boluntario bezala izena eman nahi duten pertsonak esteka honetan egin

dezakete: <http://www.puntodevistafestival.com/es/voluntarios.asp>.

Epaimahai gaztea bezala izena eman nahi duten pertsonak esteka honetan egin dezakete:

http://www.puntodevistafestival.com/es/jurado_juventud.asp